



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAK

# PRACTICUM II

## Gida Orokorra

Practicum Batzordea  
2016ko Iraila



# AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. Sarrera.....  | 4  |
| 2. Irakasgaiaren testuingurua .....                              | 5  |
| 3. Practicumaren araudia .....                                   | 6  |
| 3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK.....                             | 6  |
| 3.2. Arau orokorrak .....  | 6  |
| 3.3. Plazen eskaintza eta esleipena .....                        | 7  |
| 3.4. Ikasleen ikastetxe hautaketa.....                           | 7  |
| 3.5. Baliozkotzeak.....  | 7  |
| 3.6. Kasu bereziak: lanaldi erdia, data aldaketak.....           | 8  |
| 3.6.1. Kasu berezietarako prozedura .....                        | 8  |
| 3.6.2. Egonaldiaren datak aldatzea.....                          | 9  |
| 3.6.3. Egonaldia lanaldi erdiko praktiketan egitea.....          | 9  |
| 3.6.4. Bi practicum ikasturte berean egiteko aukera .....        | 10 |
| 3.6.5. Praktiketako ikastetxea aldatzea.....                     | 10 |
| 3.6.6. Ikastetxeko egonaldiaren notaren baliozkotasuna.....      | 10 |
| 3.7. Practicumeko partaideen eginkizunak .....                   | 11 |
| 3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea .....                         | 11 |
| 3.7.2. Ikastetxeko tutorea .....                                 | 12 |
| 3.7.3. Unibertsitateko tutorea.....                              | 12 |
| 3.7.4. Ikasleak .....  | 13 |
| 4. Helburuak eta kompetentziak .....                             | 15 |
| 4.1. Graduaren helburuak .....                                   | 15 |
| 4.2. Practicum IIKO kompetentziak.....                           | 15 |
| 5. Kompetentzietatik ikaskuntza emaitzetara.....                 | 16 |
| 6. Practicum Iiko GAITEGIA.....                                  | 18 |
| 7. Ebaluazioa.....   | 19 |
| 7.1. PRacticum II: Ebaluazio orria. Ikastetxeko Tutorea .....    | 20 |
| 7.2. Practicum II: Ebaluazio-orria.UNIBERTSITATEko Tutorea ..... | 22 |

# 1. SARRERA

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Gradu-Ikasketetan asko zabaldu da ikastetxeetan burutu beharreko praktikaldia aurreko diplomaturarekin alderatuz gero.

Aldaketa horrek aukera eman digu praktikaldia hiru ikasturtetan banatzeko: 5 aste bigarren mailan, 7 aste hirugarrenean eta 12 laugarrenean. Azken ikasturte horretan minorra edo espezialitatea egiten da.

Honela, Practicum Ia lehen hurbiltze moduan ulertu dugu. Praktikaldi horretan, ikasleak, ikastetxean eta, batez ere, ikasgelan eragile diren alor guztiak behatu eta aztertuko ditu.

Practicum IIan beste urrats bat ematen da ibilbide horretan; orain, ikasleak irakasle jardunean jarriko du bere arreta. Horretarako, batetik, irakasle tutorearen jarduna behatu eta aztertuko du, ikaslearen beraren jarduerarako ereduak eta adibideak jasotzeko; bestetik, ikaslea behatzaile izatetik ikasgelan esku hartzera pasatuko da, irakasteak dituen alde guztiak barrutik ezagutzeko eta bizitzeko.

Planteamendu horrek, azken finean, ikaslea bere jardunaren alde anitzak behatzera eta horiez hausnartzera bultzatuko du, ekintza eta behaketa uztartuz, azterketa hausnarketa bihurtuz.

## 2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egiten dira. Practicum progresiboa izanik, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Graduetako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgai hori (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, horiek aurrera joan ahala, konpetentzia mailak gora egingo du.

Practicumak emango dio ikasleari bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

|               | EGONALDIA                   | EPEALDIA        | KREDITUAK                |
|---------------|-----------------------------|-----------------|--------------------------|
| PRACTICUM I   | 5 aste<br>(30 ordu astean)  | urria- azaroa   | HH: 8 kr.<br>LH: 9 kr.   |
| PRACTICUM II  | 7 aste<br>(30 ordu astean)  | otsaila-apirila | HH: 12 kr.<br>LH: 11 kr. |
| PRACTICUM III | 12 aste<br>(30 ordu astean) | azaroa-otsaila  | HH: 18 kr.<br>LH: 18 kr. |

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa parte-hartzaile orokorra egitea da, ordura arte ikasitakoa erabiliz, eta irakaspen horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte-ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza- eta ikaskuntza-esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa egitea da helburua.

Practicum IIIa minorrarekin eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

### **3. PRACTICUMAREN ARAUDIA**

EHA/2011n jaso bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren arabera zuzentzen dira.

#### **3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK**

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen Praktiketako dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Praktiketako dekanordetzak berariazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarrienak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta -eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Praktiketako Dekanordearengana eta Batzordera jo beharko du.

Behin praktikak amaituta, Unibertsitateak eta Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako tutoreei, hala eskatzen dutenean.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko. Praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, automatikoki Eskola Aseguruak estaliko ditu, eta Unibertsitateak beharrezko kudeaketak egingo ditu hala izan dadin.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaia denez, fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicumeko Batzordearen laguntzarekin jarduten du.

#### **3.2. ARAU OROKORRAK**

- Ikasleak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak, Practicum IIIan salbu.
- Egonaldiak antolatzeko kudeaketa ugari egin behar direnez, beharrezkoa da prozesua hainbat hilabete lehenagoz hastea. Hala, ikasturte batean egin beharreko praktikak aurreko ikasturtean hasten dira programatzen.
- Praktikek iraun artean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipaturako alderen batekin lotutako aldaketak egitea (ikastetxe-, denboraldi-edo ordutegi-aldaketak) Practicumeko dekanordetzari dagokio. Beraz, ikasleek dekanordetzari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, Practicumaren araudian kasu berezietarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera.

### **3.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA**

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak praktikak egiteko ikastetxe eta erakundeak eskainiko ditu, urtero, modu bateratuan. Hala, titulu bakoitzak nahikoa plaza izango ditu, ikasleen espezializazio-eskariei erantzuteko.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako Batzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.

Premisa horiek zehaztuta, PI eta PIIren hautaketa-irizpide bakarra irizpide akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea.

Behin ikastetxea esleituta, ikasleak praktiken onarpen-agiria eta horiek modu egokian garatzeko eta, kasuan kasu, bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa sinatuko ditu.

### **3.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA**

Lehen aipatu bezala, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak praktikak egiteko ikastetxe eta erakundeak eskainiko ditu, titulu bakoitzak ikasleen espezializazio-eskariei erantzuteko nahikoa plaza izan ditzan.

Plazak esleitzeko prozesuaren aurretik, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak praktikak egiteko ikastetxeen zerrenda argitaratuko du, ikasleek beren lehentasunak presta ditzaten.

Irizpide akademikoen arabera (espedientea eta gainditutako kredituak) plazak hautatzeko ordena zehaztuko da eta ikasleek eskaera egiteko egutegia argitaratuko da.

Ikasleak matrikula garaian hautatuko du praktikaldia zein ikastetxetan egin.

Azken ikasturteko Practicum IIIan, ikasleak berak kudeatuko du ikastetxearen aukeraketa eta, autopracticumaren bidez, zuzenean adostuko du ikastetxearekin praktikaldi hau.

### **3.5. BALIOZKOTZEAK**

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

| Baliozkotzeak        | Irakasgai osoa   | Egonaldia bakarrik   |
|----------------------|--|--|
| <b>Practicum I</b>   | HHko eta LHko diplomatua edo graduatua bada.   | Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada  |
|                      | Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada. |  |
|                      | Plan zaharretako Practicumak eginak izatea   |  |
| <b>Practicum II</b>  | HHko eta LHko diplomatua edo graduatua bada.   | Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten badu   |
|                      | Plan zaharretako Practicumak eginak izatea   |  |
| <b>Practicum III</b> |  | Praktika-denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, minorraren alorrean.<br>Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu |

### **3.6. KASU BEREZIAK: LANALDI ERDIA, DATA ALDAKETAK...**

Kasu berezien babespean dauden ikasle guztiek Practicum bakoitzerako zehaztutako epeetan eta kasuan kasuko dokumentazio guztia aurkeztuta izapidetu beharko dituzte eskaerak (kasu berezietako inprimakia betez).

Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten kasu berezietarako eskaera guztietan, erantzukizun osoa ikaslearena izango da. Practicumeko irakasgaietan arreta berezia eskatzeko eskubidea edukitzeak ez du esan nahi gainerako irakasgaietan arreta berezia izan behar duenik.

#### **3.6.1. Kasu berezietarako prozedura**

1. Practicumeko araudia aztertu eta bertan azaldutako kasu bereziekin bat datorren ikusi.
2. Horrela bada, eskatzailearen profila zein kasu bereziri dagokion erabaki eta zehaztu.
3. Kasu berezietarako [eskaera-inprimakia](#) bete.



4. Eskaera profila egiaztatzen duen agiriekin osatu.
5. Inprimakia eta egiaztatze agiriak 1.03 bulegoan aurkeztu ikasturte bakoitzeko egutegian erabakitako epeetan.
6. Ikasle mail postakutxaren bitartez Practicum Batzordearengandik eskaerari buruzko erabakia jaso.
7. Erabakia aldekoa ez bada, Practicuma ohiko eran egin beharra dago.
8. Erabakia aldekoa bada, eskatzaileak esleitutako ikastetxearekin harremanetan jarri beharko du eta kasu bereziaren ezaugarrien berri eman. Ikastetxeak kasua onartzen badu, esleipena mantenduko da, bestela, kasuaren berezitasuna onartzen duen beste ikastetxe bat esleituko da.
9. Eskaeraren onarpenak ez du inolaz ere Practicum arautegi orokorra ez-betetzea justifikatuko.

### **3.6.2. Egonaldiaren datak aldatzea**

Arau orokor gisa, Practicuma enborreko irakasgai bat da, eta, beraz, errespetatu beharreko lauhileko eta ordutegi bat dauka zehaztuta.

Data aldaketa kasu berezi eta justifikatuetan bakarrik aztertuko da (betiere, dagokion lauhilekoa errespetatuz), eta dagokion dokumentazioa aurkeztuta (istripua, gaixotasuna, amatasuna, mugikortasun-programa batean parte hartzea - ERASMUS, SICUE...-). Oso muturreko kasu bakanetan bakarrik onartuko da lauhileko aldaketa.

**Prozedura:** Practicum Batzordeari aurkeztuko zaio, egutegian azaltzen diren epeetan, eskaera inprimakia eta behar diren dokumentu guztiak. Batzordeak data-aldaketen eskaerak aztertuko ditu eta ebazpena emailez bidaliko dio ikasleari.

#### **OHARRAK:**

- Gradua amaitzeko 3 irakasgai edo gutxiago falta zaizkien eta Practicum IIIa lehenengo lauhilekoan egin nahi duten ikasleek ezohiko epe bat izango dute, eta epe hori irailaren amaieran zabaldu eta abendu amaieran amaituko da (12 aste). Epe horiek ezingo dira ez aurreratu, ez atzeratu.
- Bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Data-aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.

### **3.6.3. Egonaldia lanaldi erdiko praktiketan egitea**

Ezohiko kasuetan eta dokumentazio egokiarekin justifikatuta (lan edo kontziliazio arrazoiak), ikasleak ikastetxean egonaldia lanaldi erdiz egitea eskatu ahalko du.

Egonaldi erdia eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintzeko aldera.

Egonaldia honako modu honetan luza daiteke:

| IRAKASGAIA    | EGONALDIA       | ASTE KOPURUA |
|---------------|-----------------|--------------|
| Practicum I   | Goizez bakarrik | 10 aste      |
| Practicum II  | Goizez bakarrik | 14 aste      |
| Practicum III | Goizez bakarrik | 24 aste      |

- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko. Ordutegi hori modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik.

#### **3.6.4. Bi practicum ikasturte berean egiteko aukera**

Bi practicum ikasturte berean egin daitezke, ez delako aurre-baldintzarik eskatzen.

- Aurretiko jakinarazpena epe barruan: kasu horretan, ikasleak adierazitako epean jakinarazi beharko du, eta egonaldia ohiko epeetan egingo du.

**OHARRA:** Aukera hau hartzen dutenek jakin behar dute bi praktika-denboraldi ikasturte berean egiteko aukera emateak EZ duela inolaz ere baimenik ematen, matrikulatuta dagoen beste irakasgai edo ikastaro batzuetara hutsik egiteko.

#### **3.6.5. Praktiketako ikastetxea aldatzea**

Ikasleek esleitutako praktiketako ikastetxean egingo dute egonaldia, Practicum IIIan salbu.

- **Ezohiko izaera** duten kasuetan bakarrik, eta dagokion dokumentazioarekin justifikatuta, ikastetxez aldatzea eskatu ahalko dute
- **Prozedura:** eskaera inprimaki normalizatu baten bidez egingo da (ikusitako web-orriko Practicum ataleko 4. puntuko *inprimakiak*-ean)). Bertan, eskaera egiteko arrazoiak eta horiek abalatzeko dokumentazioa zehaztuko dira. Orri hori 1.3 bulegoan entregatuko da ikasturte horretako egutegiak adierazten dituen epeetan.

#### **3.6.6. Ikastetxeko egonaldiaren notaren baliozkotasuna**

Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

**Salbuespenak:** dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.

Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek memoria egin ezean edo gaintitu ezean, hurrengo ikasturtean, egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

### **3.7. PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK**

#### **3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea**

Practicumaren koordinatzaileak izango du praktiketara dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura bere ikastetxean, eta halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egoki diren harremanak egitea.

Ikastetxeko zuzendariak, bertako ordezkari gorena den aldetik, ikastetxe horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

#### **Eginkizunak:**

- Practicuma egiten ari diren ikasleei ikastetxean egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Hezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duten eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Zentro hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek zentroaren bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

### **3.7.2. Ikastetxeko tutorea**

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriei buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketari dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen konpetentziak ebaluatzeko azken balioespena egitea.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

### **3.7.3. Unibertsitateko tutorea**

Practicumaren tutoretza-lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketen enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Zuzendariordeak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko

lotura. Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezen, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzan estu batetik abiatuta.

- Praktiketara ari diren ikasleekin bilerak antolatzea.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Beraren ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, zentroetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktikaldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako konpetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz ohartaraztea ikasleari.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicum kalifikatzea.
- Practicum hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleekin praktiketako tutorearekin harremanetan egotea.

### **Bisitak ikastetxeetara**

Practicum IIak irakaskuntza aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzan-harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio-bisita bat edo gehiago egingo ditu, ikastetxeko maisu- maistren lana lehen eskutik ezagutzeko eta unibertsitatearen eta ikastetxearen artean zubiak eraikitzeko.

Hauk dira bisita horren funtzioak eta edukiak:

- 1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.
- 2.- Ikastetxeko tutorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak eta ebaluazio-tresnak erabakitzea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.
- 3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

### **3.7.4. Ikasleak**

- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.

- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horren araudia errespetatzea.
- Zentroko eta unibertsitateko tutoreekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoetara jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.

## 4. HELBURUAK ETA KONPETENTZIAK

### 4.1. GRADUAREN HELBURUAK

Haur/Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte gelako lanean eragiten duten curriculum-diseinuetan jasotako esparru guztiak, betiere edukien naturaren eta konplexutasun-mailaren arteko elkarrekikotasun egokia finkatuz; horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen-maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuz.

Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.
3. Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio-funtzioak betetzea.

### 4.2. PRACTICUM IIKO KONPETENTZIAK

Taula honetan ikus daiteke, batetik, Practicumerako egokitu diren konpetentzien definizioa, eta, bestetik, konpetentzia horien errazago erabiltzeko izendatu ditugun deskriptoreak.

| <b>PRACTICUM IIKO KONPETENTZIAK</b>  | <b>DESKRIPTOREAK</b>                                  |
|--|---|
| Elkarreragin- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta aplikatzea. Ikaskuntza eta elkarbizitza errazteko beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasun sozialak menderatzea. | <b>KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA</b>                 |
| Hezkuntza-prozesuaren jarraipena egin eta kontrolatzea.  | <b>IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK</b> |
| Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealtatearekin lotzea.   | <b>TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA</b>        |
| Irakaskuntzan parte hartzea eta egiten ikastea, praktikan oinarrituta jardunez eta hausnartuz.   | <b>HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA</b>                    |

## 5. KONPETENTZIETATIK IKASKUNTZA EMAITZETARA

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jarduera multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratortzen diren "ikaskuntza-emaitza" deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza-emaitzek zehaztasun-maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza-emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio-irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza-emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluaziorako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori behar bezala jasotzen da taula honetan:

| KONPETENTZIAK<br>(deskriptoreak)  | IKASKUNTZA<br>EMAITZAK  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  | AUKERAZKO<br>EBIDENTZIAK                             |
|---|---|--|--|
| <b>KOMUNIKAZIOA<br/>ETA<br/>ELKARREKINTZA</b>   | Taldearekin eta taldekideen arteko komunikazioa erregulatzea.             | Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen ditu jarduerak.   | ITEO <sup>1</sup> , BIDEOA                           |
|   |   | Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokutzen du.  | ITEO, BIDEOA   |
|   |   | Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu. | ITEO, BIDEOA,<br>MINTEGIA-FOROA,<br>MEP <sup>2</sup> |
|   | Komunikazio-teknikak modu egokian erabiltzea, euskaraz nahiz gaztelaniaz. | Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan.                           | ITEO, BIDEOA   |
| Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan. |   | ITEO, BIDEOA,<br>MEP   |  |

<sup>1</sup> ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria

<sup>2</sup> MEP: Memoria/Ebidentzia-Karpeta/Portfolioa



| KONPETENTZIAK (deskriptoreak)                          | IKASKUNTZA EMAITZAK  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  | AUKERAZKO EBIDENTZIAK     |
|--|--|--|---------------------------|
| <b>IKAS-IRAKASKUNTZA-RAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK</b> | Curriculumaren esparruetara eta kompetentzietara xedaturik dauden jarduera didaktikoak diseinatzea | Ikasitako ikaskuntza-printzipioak eta metodoak aplikatzen ditu.                                  | MEP, MINTEGIA-FOROA       |
|  |  | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak. | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |
|  |  | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.                          | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |
|  | Ikasleen ikaskuntza-prozesuak erregulatzea   | Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak baloratzean.  | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |

| KONPETENTZIAK (deskriptoreak)                  | IKASKUNTZA EMAITZAK  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK   | AUKERAZKO EBIDENTZIAK |
|--|--|---|-----------------------|
| <b>TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA</b> | Teoria gelako errealitatera egokitzen jakitea eta praktikari berari buruzko hausnarketa egiteko gai izatea | Modu kritikoan aztertzen du maisu-maistraren eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz. | MEP, MINTEGIA-FOROA   |
|  |  | Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan.                                   | MEP, MINTEGIA-FOROA   |

| KONPETENTZIAK (deskriptoreak)      | IKASKUNTZA EMAITZAK  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  | AUKERAZKO EBIDENTZIAK           |
|------------------------------------|--|--|---------------------------------|
| <b>HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA</b> | Ikaskuntza-egoeren garapena eta norberaren kompetentzia profesionalak balioestea       | Lanaren inguruko jakin-mina eta hausnarketarako jarrera adierazten du.                                       | EGUNEROKOA, MEP, MINTEGIA-FOROA |
|                                    | Maisu-maistraren eginkizuna bere gain hartzea  | Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du.  | ITEO, BIDEOA                    |
|                                    |  | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean.                                       | ITEO, MINTEGIA-FOROA            |
|                                    |  | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu. | ITEO, MINTEGIA-FOROA            |
| Ikerketarako gaiak identifikatzea  | Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu. | MEP, MINTEGIA-FOROA  |                                 |

## **6. PRACTICUM IIKO GAITEGIA**

### **1. BLOKEA: MAISU/MAISTRA-TUTOREAREN EGINKIZUNA**

- Bizikidetzara-arauek jakinaraztea eta gela barruko harremanak:
  - Elkarrekintza-prozesuen arauketa.
  - Egoera diskriminatzaileak eta horien aurrean izan beharreko jarrera (jarduteko protokoloak eta programak).
  - Gaitasun sozialen erabilera (gizarte-konpetentziak) eta horiek gatazken konponketan aplikatzea.
  - Konpetentzia linguistikoak: egokitzapena eta zuzentasuna hizkuntzaren erabileran.
  
- Ikasleen motibazioa
  
- Ikasleei orientazioa eta tutoretza eskaintzea.
  
- Familiarekin harremanak, lankidetzara, eta familiarean eta ikastetxearen arteko eginkizunak bereiztea.

### **2. BLOKEA: IRAKASLEAREN PRAKTIKA**

- Gelako programazio-unitateak: metodologia-irizpide orokorrak
  
- Curriculuma ikastetxearen errealitatera egokitzea.
  
- Hainbat esparruren programazio didaktikoak aztertu eta jarduerak diseinatu eta ezartzea.
  
- Gelan esku hartzeko estrategiak
  
- Ebaluazio-irizpideak
  
- Aniztasunaren tratamendua

## 7. EBALUAZIOA

Bi irakaslek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: unibertsitateko tutoreak eta ikastetxeko tutoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan:

Unibertsitateko tutoreak alderdi hauek baloratuko ditu:

- Aurretiko prestakuntzan egindako lana, mintegiak, foroak, bisitak, bideoa, egunerokoa, ebidentzia-karpeta, portfolioa, memoria...

Atal horien ebaluazioak azken notaren %70 balioko du.

Gainerako % 30a ikastetxeko tutoreak baloratuko du, ikasleak praktika-aldian egin duen lana kontuan hartuta.

Irakasgaiaren beraren kompetentziak lortzea da Practicumaren helburua (ikus 4. atala), eta horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio-irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat gainditzeko ez badu azken nota EZ NAHIKO izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ez ohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ez ohiko deialdian ere gainditzeko ez badu, practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian EZ NAHIKOA jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da. Dena den, huts egite bakoitzak puntu 1 kenduko dio azkeneko emaitzari.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio-irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten kompetentziekin daude lotuak, eta beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

## 7.1. PRACTICUM II: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA

IKASTETXEKO TUTOREA: .....

IKASTETXEA: .....

IKASLEA: .....

### EBALUAZIO- IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak ikasleek bete behar dituzten helburuekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da, eta beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabearen irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

| KONPETENTZIA                                  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  |
|---|--|
| <b>KOMUNIKAZIOA<br/>ETA<br/>ELKARREKINTZA</b> | Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen ditu jarduerak.   |
|   | Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokatzeko du.   |
|   | Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu. |
|   | Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan.                           |
|   | <b>BALORAZIO OROKORRA (1-10)</b>   |

| KONPETENTZIA  | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  |
|---|--|
| <b>IKAS-IRAKASKUNTZA<br/>-RAKO TEKNIKAK ETA<br/>ESTRATEGIAK</b> | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak. |
|   | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.                          |
|   | Argitasuna, objektibotasuna eta irizpideberdintasuna agertzen ditu eskolako lanak balioestean.   |
|   | <b>BALORAZIO OROKORRA (1-10)</b>   |

| KONPETENTZIA                | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  |  |
|-----------------------------|--|--|
| HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA | Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du.  |  |
|                             | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean.   |  |
|                             | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezkoak diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu. |  |
|                             | Lanaren inguruko galderak egiten ditu,   |  |
|                             | <b>BALORAZIO OROKORRA (1-10)</b>   |  |

**OHARRAK:**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

.....(e)n,201.....(e)ko.....ren .....(e)(a)n

## 7.2. PRACTICUM II: EBALUAZIO-ORRIA.UNIBERTSITATEKO TUTOREA

UNIBERTSITATEKO TUTOREA:.....

IKASLEA:.....

ESPEZIALITATEA: ..... IKASTURTEA: .....

Hemen azaltzen diren irizpideak ikasleak bete beharreko gaitasunei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

### UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (%70)

| KONPETENTZIA                         | EBALUAZIO ADIERAZLEAK   |
|--------------------------------------|---|
| KOMUNIKAZIOA<br>ETA<br>ELKARREKINTZA | Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan. |
|                                      | BALORAZIO OROKORRA  |

| KONPETENTZIA   | EBALUAZIO ADIERAZLEAK   |
|--|---|
| IKAS-<br>IRAKASKUNTZA-<br>RAKO TEKNIKAK ETA<br>ESTRATEGIAK | Ikasitako ikaskuntza-printzipioak eta -metodoak aplikatzen ditu.                                  |
|  | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak.. |
|  | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.                           |
|  | Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak baloratzean.   |
|  | BALORAZIO OROKORRA  |

| KONPETENTZIA                            | EBALUAZIO ADIERAZLEAK   |  |
|---|---|--|
| TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA | Modu kritikoan aztertzen du maisu-maistraren eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz. |  |
|   | Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan.                                   |  |
|   | <b>BALORAZIO OROKORRA</b>   |  |

| KONPETENTZIA                | EBALUAZIO ADIERAZLEAK  |  |
|-----------------------------|--|--|
| HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean  |  |
|                             | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta a estrategiak erabiltzen ditu. |  |
|                             | Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu.                         |  |
|                             | <b>BALORAZIO OROKORRA</b>  |  |

| IKASTETXEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 30) |  |  |
|--|--|--|
| KONPETENTZIAK                            | KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA                 |  |
|  | IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK |  |
|  | HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA                    |  |
|  | <b>BALORAZIO OROKORRA</b>                      |  |
|  |  |  |

**OHARRAK:**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**KALIFIKAZIOA (1-10) :**

.....(e)n, 201... (e)ko .....ren .....(e)(a)n